

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Alemania, Japonia, Letonia eta Getxo, Aste Koralean (3. or.)
- > Eskuz Esku Abesbatzak 25. urteurrena ospatuko du "Emakume-izenarekin" kontzertuarekin (3. or.)
- > Udalak kutsadura akustikoa aztertzeko "Noisetech" proiektu pilotuan parte hartzen du (4. or.)



* Bidean E.T., Euskara Saria (3. or.)

Kontatu erretratu hau. Hilak 22, asteazkena, 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Liburutegien eguna. Hilak 24, ostirala, mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenei liburu bat oparituko zaie (agortu arte). Romo, Villamonte eta San Nikolaseko liburutegietan.

A-
GENDA

Beste 166.737 euro udalerriko enpresak kontratatuzeko laguntzetarako erabiliko dira

370.000 euro inguru Lanbiden izena emandako Getxoko 26 langabe kontratatuzeko

Udalak 491.737 euroko diru-laguntza jaso du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eskutik, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2025eko deialdiaren barruan. Diru-laguntza horretatik, 325.000 euro enplegua sustatzeko jardueretara bideratuko dira, Lanbiden izena emandako 26 langabe getxotar kontratatuta (beste 44.571 euro gehiago Udalak jarriko ditu), eta gainerakoa, 166.737 euro, Getxoko enpresentzako kontrataziorako laguntzei dagokie (166.737 €).

Udal kontratazioak

26 langabe kontratatuko dira 22 udal proiektutarako. **Urriaren 30ean** hasiko dira eskaintzak kudeatze eta parekatzearen bitartez. Eskatutako profilak eta



baldintzak [erantsitako koadroan](#) kontsulta daitezke.

Enpresentzako laguntzak kontrataziorako

Bestalde, Getxon erroldatutako eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako pertsona langabeak

kontratu dituzten tokiko enpresei diru-laguntzak emango zaizkie. Kontratu horiek 2024ko uztailearen 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean hasita egon beharko dute. Kontratuak mugagabeak izan behar dira, lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak, eta gutxienez lanaldiaren %50 izan behar dute.

Aurreko deialdi bezala, artisten eta ikuskizun publikoetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuak ere diruz lagunduko dira (gutxienez 3 hilabeteko iraupena izango dute, eta lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke, gutxienez lanaldiaren %50ekoak).

Deialdi bakarra egingo da eta eskabideak aurkezteko epe bakarra izango du: deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik (azaroaren 2garren hamabostaldian, ziuurrenik) abenduaren 31ra arte. Eskabideak aurkezten den hurrenkeraren arabera eta aurrekontu-kredituaren mugaraino emango dira.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/wq5pqitx>

PROIEKTUAK	KATEGORIA	TITULAZIOA/ GUTXIENEO PRESTAKUNTZA	BEHAR DEN LANBIDEA (CV LANBIDE)	Kontratu beharreko pertsona-kop.:
Administraria, Udaleko hainbat arlotan administrazio-lanak egiteko	Administraria (C1)	Administrazioan goi-mailako gradua, batxilergoa edo profesionaltasun-ziurtagiria (administrazio-familia, 3. maila) + Word eta Excel	Administrari orokorra (43091029)	7
Administraria, Udaleko hainbat arlotan administrazio-lanak egiteko	Administraria (C1)	Administrazioan goi-mailako gradua, batxilergoa edo profesionaltasun-ziurtagiria (administrazio-familia, 3. maila) + B2 euskara-maila + Word eta Excel	Administrari orokorra (43091029)	9
Administraria, Udaleko hainbat arlotan administrazio-lanak egiteko	Administraria (C1)	Administrazioan goi-mailako gradua, batxilergoa edo profesionaltasun-ziurtagiria (administrazio-familia, 3. maila) + C1 euskara-maila + Word eta Excel	Administrari orokorra (43091029)	1
Enpresetarako dirulaguntzak kudeatzeko laguntza	Erdi-mailako teknikaria (A2)	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Enpresa Zientzietan, Zuzenbidean, Ekonomian edo Lan Harremanetan diploma edo gradua + B2 euskara-maila + Word eta Excel	Enpresa-aholkularia (26221027), aholkulari juridikoa (25991028) eta administrazio publikoko erdi-mailako teknikaria (26231066)	1
Garbiketa eta hondakin-bilketako zerbitzuko teknikari laguntza ematea kontzientziazio-lanetan	Erdi-mailako teknikaria (A2)	Gizarte Hezkuntzan, Ingurumen Zientzietan, Biologian edo baliokidean diploma edo gradua	Gizarte-hezitzailea (28241056) eta Ingurumeneko teknikaria (31291189)	1
Komunikazio-lanetarako teknikaria	Erdi-mailako teknikaria (A2)	Komunikazio-arloari lotutako lizentzia, diploma edo gradua + C1 euskara-maila + Word eta Excel	Publizitateko edo harreman publikoetako teknikariak (26511049), kazetariak (29221044) eta diseinatzaile grafikoak eta multimedia-diseinatzaileak (24841012)	2
Sistemen dokumentu-artxiboaren antolaketa eta kategorizazioa	Informatikako teknikari laguntzailea (C1)	Telekomunikazio- eta informatika-sistemetako goi-mailako teknikaria edo sareko informatika-sistemen administrazioan goi-mailako teknikaria + B1 euskara-maila + B gidabaimena	Telekomunikazio-teknikariak (38331033), telekomunikazio-ekipoen eta -sistemen instalatzaileak (75331067) eta sare-sistemen administariak (27211018)	1
VB6 aplikazioak web-inguruetara migratzea, React eta Net core bidez	Informatikako teknikari laguntzailea (C1)	Multiplataforma-aplikazioen garapenean goi-mailako teknikaria edo web-aplikazioen garapenean goi-mailako teknikaria	Web- eta multimedia-programatzaile analista (27131024) eta diseinatzaile grafikoak eta multimedia-diseinatzaileak (24841012)	1
Bide publikoa margotzea, segurtasuna hobetzeko	Lanbide-talde sailkapeneko langilea	Eskola-ziurtagiria edo baliokidea + B gidabaimena	Pintorea edo paperezatzailea (72311035)	2
Instalazioak prestatzea eta mantentze-lanak egitea	Lanbide-talde sailkapeneko langilea	Eskola-ziurtagiria edo baliokidea	Eraikinen mantentzailea (71911012)	1

- **Kontratuak sei hilabete iraungo dute** eta lanaldi erdikoak izango dira, langileen kontratuak izan ezik, lanaldi osokoak izango baitira.
- Kontratazio horietarako hautagaien hautaketa Euskal Enplegu Zerbitzuan erregistratutako eskaintzaren bidez egingo da. **Urriaren 30ean**, eskaintzak **parekatze eta hedapen bidez** kudeatzen hasiko dira; hori dela-eta, ezinbestekoa izango da egun horretan interesdunak langabezia egotea eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Gainera, ezinbestekoa izango da:
 - Lanposturako beharrezkoa den gutxieneko titulazioa edo prestakuntza egiaztatzen duen dokumentua izatea eta Lanbideko CVan adierazita egotea.
 - Getxon erroldatuta egotea.
- Adierazitako lanbideetarako hautagairik ez badago, bilaketa zabalduko da. Lanbide berriak webgune honetan argitaratuko dira: www.getxo.eus.
- Getxoko Udalak ezingo du azken deialdi (2024an) kontratatutako inor kontratatu.
- Kontratuak 2025eko abenduaren 31 baino lehen hasiko dira. Nolanahi ere, kontratuak 2026ko ekainaren 30a baino lehen amaituko dira.



URRIAK 23 OSTEGUNA

Asteklima Getxo. Liburu-trukea. 12:00etatik 13:30era, Algortako Geltokia plazan. Hitzaldia. 18:00etatik 20:00etara, Getxo Elkartearen, "Klima aldaketaren oraino eta etorkizuneko ondorioak" (gaztelaniaz). Doan. Izen-emateak: astekli-magetxo@gmail.com

Antzerkia. Clown. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Salvar al soldado clown", Puk magoaren. Doan.

Getxo Eszena. Dantza-Antzerkia. Muxikebarrin, 20:00etan, "Tengo algo preparado" (gaztelera), Páez Produccionesekin. 6€.

XXXV. Mikologia Jardunaldiak. Hitzaldia. 19:30ean, Aldai Patronatuan, "Basa-perretxikoak jan ondorengo pozoizteak" (gaztelaniaz), Jesús M^a González medikua eta Basozaleak elkarteak kidearen eskutik. Antolatzailea: Basozaleak Getxoko Mikologi eta Botanika Elkarteak.

URRIAK 24 OSTIRALA

Asteklima Getxo. Tink Herria tailerra. 18:00etatik 19:30era, Villamonteko Kultur Aretoan, etxe txikiak material birziklatuekin eraikitzen ikasteko. Doan. Izen-emateak: astekliimagegetxo@gmail.com

Liburutegiaren Eguna. Mailegu-zerbitzua erabiltzen dutenei liburu bat oparitzea (agortu arte). Romo, Villamonte eta San Nikolaseko liburutegietan.

Getxo Eszena. Antzerki-Musika. Muxikebarrin, 19:30ean, "Cantando para Elisa" (gaztelera), Aitor Ruizekin. 8€.

Zine foruma. Cultura y sociedad. Un espacio de diálogo. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "El sentido del humor como arma de nuestro tiempo". Brad Birden "Los increíbles" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). Hizlaria: José Manuel Gutiérrez (Arte Historioaren irakaslea). Doan. Antolatzailea: iCmedia Euskadi.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 11:30etik 12:30era, "Hilerrri bat itsasoari begira" (gaztelera). Doakoa. Erreserbak: 94 491 08 00 infoturismo@getxo.eus

URRIAK 25 LARUNBATA

Getxo Eszena. Zirkua. Muxikebarrin, 20:00etan, "Sustrai", Zirkus-Sekin. 12€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bisita gidatua. 12:00etatik 13:00etara, Punta Begoña galerietara. Doakoa. Erreserbak: www.puntabegonagetxo.eus

Hitzaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "El impacto de la reforma protestante en Europa y su legado actual". Antolatzailea: Asociación Humanitaria Misión de Fe elkarteak.

Sendi Tailerra. Liburu-eraketa apalategi esekia sokekin, 4-8 urtekoentzat, lagunduta, euskaraz mintzatzeko. 10:30ean, Aldai Patronatuan.

URRIAK 26 IGANDEA

Getxo Eszena. Haur ikuskizuna. Muxikebarrin, 18:00etan, "Hamelingo txirularia". BAM! Bergarako Antzerki Musikalarekin. 8€.

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Bakarkako irakurketa zuzeneko musikarekin. 12:00-13:00, Romo Kultur Etxean, "Orrialdeak eta akordeak: musikaren doinupean irakurtzen" (euskaraz eta gaztelaniaz). Doan. Erreserbak: 94 466 00 22. Ibilbide gidatua. 11:00-13:00, "Historias secretas de las rocas de palacio" (gaztelaniaz), Bizkaia Zubitik. Doan. Erreserbak: 666 85 77 61.

URRIAK 27 ASTELEHENA

Sendi Solasaldia. "Eguneroko estresa eta haurren garapen emozionala", Mireia Centeno psikologoarekin. 17:30ean, Villamonteko Kultur Etxean. Euskaraz, itzulpen zerbitzuarekin. Izenematea: www.eqizu.eus

URRIAK 29 ASTEAZKENA

Ondarearen Europako Jardunaldiak. Ibilbide gidatua. 18:00-20:00, "Areeta" (euskaraz), Bizkaia Zubia plazatik. Doan. Erreserbak: 666 85 77 61.

Versadas olerki kluba. 19:00etan, Villamonteko Kultur Aretoan, Dylan Thomas (gaztelaniaz). Dohainik.

URRIAK 30 OSTEGUNA

Errege Kopa Gobelan. 20:00etan, futboleko Errege Kopako kanporaketa CD Getxo eta CD Alavésen artean, azkenean, Gobelan.

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Sonat Vox (Alemania). Sarrera: 5 euro (abonua: 15 euro).

Hitzaldia. 18:00etan, Gurari Emakumeen Etxean, "Testamentos, Herencias, Regímenes Matrimoniales y Donaciones". Hizlaria: Olga Macía abokatua. Sarrera libre (edukieramugatu). Antolatzailea: Gizartiar Romo-Areeta emakumeen elkarte soziokulturala.

URRIAK 31 OSTIRALA

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Yumecan Choir (Japonia). Sarrera: 5 euro (abonua: 15 euro).

AZAROAK 1 LARUNBATA

Getxo Eszena. Dantza. Hilaren 2ra arte, 10:00-14:00h eta 16:00-19:00h, Muxikebarrin, "Dantzaok hastapen ikastaroa puntu finkoko arnesarekin", Maitane Sarralde konpainiarekin. Adin guztientzat. 40 euro. Izen-ematea aldeztu aurretik: masterclass@getxo.eus

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Getxoko Eskuz Esku Abesbatzaren "Con nombre de mujer" emanaldia, Biotz Alai eta Lilura Abesbatzaren laguntzarekin. Sarrera: 5 euro (abonua: 15 euro).

AZAROAK 2 IGANDEA

44. Aste Korala. 19:30ean, Muxikebarrin, Balsis Youth Choir (Letonia). Sarrera: 5 euro (abonua: 15 euro).

Kontzertua. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokian, Pergolesiren "Stabat mater", honako hauekin: Patricia Sésar (sopranoa), Susana Crespo (mezzosopranoa) eta Pedro Guallar (organista). Sarrera libre. Antolatzailea: Asociación de Amigos y Amigos del Organo Merklin elkarteak.

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Tony, Shelly y la linterna mágica" (gaztelaniaz). Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Gobernu-taldea berrantolatu da

Aste honetan gauzatu da Udal Gobernu taldearen berrantolaketa, Ignacio Uriarte zinegotzia berriro lanean hastearrekin batera.

Berrantolaketa hau legegintzaldiaren erdialdean kokatzen da, gobernu-taldeak martxan jarritako ekintza eta Legegintzaldiko Planaren garapenean egiteke dauden erronken balantzea egin duen momentuan. Helburua gobernu-egitura indartzea da, agintaldiaren bigarren erdiari arrakastaz eta eraginkortasunez aurre egiteko, Udalaren egonkortasuna bermatuz eta taldearen barne kudeaketa eta koordinaziorako gaitasuna indartuz. "Legealdiko etapa berri batean sartu gara, hasitako proiektuak finkatu eta urrats sendoak emanez aurrera egiteko garaia. Erantzukizunen birbanaketa honek agerian uzten du taldeak Getxorekin duen konpromisoa eta herritarren beharrei erantzuteko modu koordinatu eta hurbilean lan egiteko dugun borondatea", nabarmendu du Amaia Aguirre alkateak.

Erantzukizunen birbanaketa honetan, Janire Ocio da EAJ-PNVren bozeramaile berria, Ignacio Uriarteren orde. Uriarte Ogasun arloko arduradun eta Antolakuntza eta Kontuen Batzordeko presidente gisa itzuli da. Honez gain, Bide Publikoaren zuzendaritza eta Punta Begoñako galeriak berreskuratzeko proiektua koordinatzeko ardura ere bere gain hartu ditu.

Halaber, Iñigo Urkitzak erantzukizun berriak hartu ditu, Diruzaintza eta Zerga Kudeaketa, Langileria eta Ingurumen arloetan. Gainerako arloek egungo konfigurazioari eusten diote.

"Gobernu-taldeak etorkizuneko erronkei erabakitaz aurrera egiteko beharrezkoak diren esperientzia, sendotasuna eta egonkortasuna ditu. Etorkizuneko ikuspegi argi batekin jarraitzen dugu lanean, getxotarrekiko konpromisoak eta erantzukizunak gidatuta", azpimarratu du Aguirrek.

Antzerki eta dantza tailerrak gazteentzat

Udaleko Gazteria Zerbitzuak antzerki eta dantza moderno lantzeko bi tailer antolatu ditu ikasturte honetarako, 11 eta 17 urte artekoentzat. Aritz Bengoa Urrutia aktorea izango da antzerki-saioen dinamizatzailea, Algortako Gaztelekuan, asteazkenetan, 18:00etatik 19:30era. Talde bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz izango da. Doako izenematea: 688 84 03 56 edo gauegungaztelekua@getxo.eus.

Bestalde, dantza modernoaren tailerra euskaraz izango da, Romo Kultur Etxean, azarotik maiatzera bitartean, asteazkenetan, 17:00etan, Oscar Pascual dantzari profesionalak koordinatuta. Helburua da osasuna, koordinazioa eta malgutasuna hobetzea, emozioak adierazteko espazioa eskaintzeaz gain. Interesatuak izenematea guregunegaztelekua@getxo.eus helbidean edo 635 70 65 26 telefono zenbakian egin dezakete.



Tokiko irudiak dituzten poltsak

GetxoEnpresak, Udalaren laguntzarekin, *Negozioek dinamizatzen* dute Getxo ekimena jarri du martxan. Horren bidez, udalerriko motiboekin apaindutako poltsa bilduma batekin sarritu dituzte bezeroak, eta, hala, merkataritza-bizitza dinamizatuko dute. Lehen ekintza honetan parte hartzen duten 25 negozioek 70 poltsa organiko, berrerabilgarri, bost diseinu ezberdinekin eta Getxo identifikatzen duen sinbologiarekin jaso dituzte, Chema Gutiérrez Landaburu margolariak eginak.

Bizilagunak bazkariak berriro

Azaroaren 9ra arte zabalik egongo da Bizilagunak bazkarietan parte hartzeko izena emateko epea. Aurten azaroaren 16an izango dira, *Etxean edo txokoan, sareak elikatzen!* lelopean. Udalak, Egizu elkarteak eta Getxoko Etorrinen Plataforma Federazioak sustatzen dute ekimena, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, besteak beste, elkarbizitza sustatze, eta aniztasuna eta kultur artekotetasuna ospatze aldera.

Hainbat kultura eta jatorritako familia parte hartzaileek (bertokoa eta beste herrialde batetik etorritakoak) otordu bat partekatuko dute mahai baten inguruan, etxetan, txokotan eta abarretan. Izenematea: www.labor.eus/Bizilagunak25 loturaren edo 622 433 085 telefono zenbakiaren bitartez.

Sarekideren argazki lehiaketa

Azaroaren 16ra arte zabalik egongo da Argazkilaritza Sozialaren VIII. lehiaketarako lanak aurkezteko epea, SAREKIDE Getxoko boluntariotza erakundearen elkarrekin antolatuta, Udalaren laguntzarekin. *Keinu txikiak, aldaketa handiak* lelopean, lehiaketak borondatezko parte-hartzeari buruz hausnartzera eta eguneroko bizitzan duen eragina irudietan jasotzera gonbidatzen ditu herritarrak. 14 urtetik gorako lagunek parte hartu ahal izango dute, gehienez bi obrarekin, formatu digitaletan, banaka edo taldeka, eta sarekidefoto@gmail.com helbidera bidali behar dituzte.

Hilerriko ordutegia zabaltzea

Domu Santuen eguna dela eta, udal hilerririk bere ordutegia luzatuko du. Horrela, urriaren 27tik 31ra zabalik egongo da 7:15etik 20:00etara; azaroaren 1ean, 8:00etatik 20:00etara, eta igandean, azaroaren 2an, ohiko ordutegia izango du berriro, hau da, 9:00etatik 18:00etara.



-Alokagai garaje plaza Euskalerrria kalean (igogailuen ondoan). Tel.: 94 612 91 48.

-Salgai garaje partzela handia, itxia, Algortan. Fadura aurrean. Tel.: 618 602 467.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.



Bidean Erromeria Taldeak jasoko du 2025eko Argia Ereiten Euskara Saria

Bidean Erromeria Taldeak jasoko du aurten Argia Ereiten Euskara Saria, interpretatzen duen euskal musikaren bidez gazteak euskal kulturara erakartzeko egiten duen lanagatik eta gizarte sareetan euskararen erabilera sustatzeagatik. Euskararen sustatze lana aitortzeko Udalak antolatutako Sariaren emate-ekitaldia Tiki Toki zentroan izango da azaroaren 4ean, 19:00etan.

Bidean Erromeria Taldea gaur egun Beñat Gorostiagak (bateria), Ainhoa Aranburuk (ahotsa), Jon Iglesiasek (gitarra), Ander Romero (gitarra), Liam O'moilanek (baxua), Aritz Landetak (trikitixa) eta Asier Castilok (tronboia) osatzen dute. Alain Barbado, Kerman Santiago eta Mikel Iglesias ere taldeetik pasa ziren.

Kontzertuetan ia kanta guztiak

euskaraz dira "guri gustatzen zaigun musika delako. Ez da erabaki kontzientea izan baizik eta barnetik era naturalean ateratzen zaiguna, seguraski guk bizi dugun testuinguru euskaldunagatik eta uste dugulako egungo euskal panorama oso aberatsa dela", azaldu dute Bidean Erromeria Taldeak.

Taldeak normalean uda garaian eskaintzen ditu saioak eta beren asmoa da horrela segitzea, gutxienez 10 urte betetzera heltzeko. Horregatik, taldeak oso pozik jaso du Sariaren berri. "Esker onez eta uste dugu errekonozimendu bat dela gure ibilbideari", nabarmendu dute.

Alemania, Japonia, Letonia eta Getxo, Aste Koralean

Sonat Vox taldeak Getxoko 4. Aste Korala irekiko du datorren ostegunegun, urriak 30, eta azaroaren 2ra arte izango da Muxikebarrin. Alemania hegoaldeko abeslari gazte nabarmenetako batzuek osatutako abesbatza da eta Errenazimentutik gaur egungo musikara arteko musika jotzen du. Hurrengo egunean, Tokion egoitza duen Yumecan koru japoniarrek hartuko du lekukoa. Horrek adin guztietako 60 abeslari inguru



biltzen ditu, eta lau urtez jarraian Urrezko Saria jasoko du.

Aste Koralaren hirugarren eguna Eskuz Esku talde getxotarraren eskutik izango da. Bere 25. urteurrena Emakume-izenarekin izeneko kon-

Arte bisualen erakusketen deialdia

Kultur Etxeak arte bisualen erakusketen deialdia jarri du abian sortzaileentzat, Romo Kultur Etxeko, Vilamonteko eta Algortako Merkaturako hiru udal aretoetan haien lana eta horri buruzko erakusketak indartzeko. Artelanen diziplina artistikoak eta formatuak hauek izango dira: pintura, eskultura, argazkigintza, instalazioak, bideo-arte eta ikusizko arteekin lotutakoak. Aurreikuspenen arabera, 2026ko uztailetik 2027ko martxora bitartean egongo dira ikusgai (Villamonteko lokala birmoldatzeko obrak direla eta, bere erabilgarritasuna mugatua izango da).

Eskaerak modu telematikoan aurkeztu behar dira <https://eudala.getxo.eus/> webgunean azaroaren 14ra arte.

Getxo Kulturak 15.000 euro bideratuko ditu, 25 proiektu aukeratuak dira eta bakoitzak 600 euro jasoko ditu.

www.getxo-kultura.eus/deialdiak.

tzertuarekin (ikus behean dagoen notizia) ospatuko dute getxotarrak. Letoniako BALSIS Gazte Abesbatzak amaiera bikaina emango dio Asteari a capella musika koralean duen ikuspegi sortzailearekin, kontzertu bakoitza saio berezia baita, bere nazioarteko 25 sariak erakusten duten bezala.

Kontzertuak 19:30ean izango dira eta sarreraren prezioa 5 eurokoa da (abonua 15 euro).

Getxo Eszena Jardunaldien azken txanpa

Asteburu honetarako aurreikusitako programazioarekin amaituko dira urriaren 2tik aurrera Muxikebarrin garatzen ari diren Getxo Eszena Jardunaldiak. Ostiral honetan, hilak 24, 19:30ean, *Cantando para Elisa* musikala ikusi ahal izango da, familia arteko harremanei, inkomunikazioari eta musikaren botere eraldatzaileari buruzkoa, umorearekin, emozioarekin eta abesti originalekin kontatua (sarrera: 8 euro).

Hurrengo egunean, larunbatean, hilak 25, 20:00etan, *Sustrai ikuskizuna* taularatuko da, zirkua, dantza eta



arte plastikoa uztartzen dituen ikuskizuna, garenaz eta sortutako desordenaz hitz egiteko (sarrera: 12 euro). Eta igandean, hilak 26, 18:00etan, 4 urtetik gorako haurrek *Hamelingo txirularia*-z gozatuko dute euskaraz, Grimm anaien ipuin ospetsua zuzeneko orkestrarekin, 30 aktore eta haur abesbatza batekin (sarrera: 8 euro).



Eskuz Esku Abesbatzak 25.urteurrena ospatuko du "Emakume-izenarekin" kontzertuarekin

Eskuz Esku ahots zuri helduek osatutako Getxoko abesbatzak hilabeteak daramatza sortu zeneko 25. urteurrena ospatzeko kontzertua prestatzen. Datorren azaroaren 1ean, larunbata, Muxikebarriko Ereaga Aretoan izango den *Emakume-izenarekin* ekitaldi horretan Eskuz Esku abesbatzako kideekin batera izango dira haur eta gazteek osatutako ahots zurien Lilura Abesbatza eta Biotz Alai ahots baxuen abesbatza, biak getxotarrak.

Nagusiki musika-emanaldia izango da, hainbat ezustekorekin, dantzarekin, koreografiarekin

eta abarrekin, 44. Aste Koralaren astean kokatuta. Eskuz Eskuk 25 urte hauetan interpretatu duen musikan zeharreko bidaia izango da, bere abesti ospetsuen hautaketaren bidez (batzuk tradizionalak eta beste batzuk abesbatzarenak).

Eskuz Esku Abesbatzaren hasiera 2000. urtean izan zen, Mariasun Yangüasek, abesbatzaren zuzendari eta sustatzaileak, abesbatza sortzeko proiektua bideratu zuenean, beste zortzi emakumekin batera. Orduetik hamarnaka emakume batu eta finkatu dira, egun abesbatza berrogei emakumek osatu arte.

Plataforma berritzaileak pertsonen emozioak identifikatuko ditu hilabete batez zarata mota desberdinen aurrean

Udalak kutsadura akustikoa aztertzeko "Noisetech" proiektu pilotuan parte hartzen du

Udalak proiektu pilotu berritzaile batean parte hartzen du, pertsonen zarata mota desberdinen aurrean dituzten emozioak eza-gutzeko. Proiektu hori Aclima ingurumen sektoreko enpresen euskal elkarteak, AAC akustika-eta argi-ingeniaritza espezialistak eta Grupo Gestionet-ek garatu dute. Partzuergo horrek plataforma bat garatu du gamifikazioaren edo jokoaren berezko teknikak eta metodologiak txertatzearen bidez zarataren eragin kaltegarriaz kontzientziatzeko.

Proiektuaren hiru helburu nagusiak honako hauek dira: hiri-ingurunean sortzen diren zarata eta eragozpen motak aztertzea; herritarrek zarata mota desberdinen aurrean transmititzen dituzten emozioak eza-gutzea; eta zarata sortzen duten eragileak sentsibilizatzea kutsadura akustikoa murrizteko.

Produktu berriak hiriko zarata mota desberdinen aurrean dituzten emozioak identifikatzen lagunduko die pertsonen. Horrela, pertsonak jabetu ahal izango dira zaratek beren eguneroko bizitzan duten eraginaz.

"Software smart edo adimentsua da, eta aldagai subjektiboak ditu zarata buruzko ebaluazioan eta kontzientziazioan. Zarata neurtzeko beste modu bat da, eragiten dituen emozioen bidez, eta ohiko zarata-



ezagutu descubre
GETXO
inoiz bizi izan ez duzun bezala
como nunca lo habías sentido

Entzun. Sentitu. Parte hartu.
Escucha. Siente. Participa.

Zarataren inguruko esperientzia sentsorialak.
Experiencia sensorial sobre el ruido.

Lagundu iezaguzu zure udalerrian zaratak sortutako sentsazioak erregistratzen eta neurtzen.
Ayúdanos a registrar y medir las sensaciones que genera el ruido en tu municipio.

-mapetan aztertzen ez diren beste ingurune batzuk aztertzeko aukera ematen du (trafikoan zentratuta, garriraioan...), zarata-mapa zehatzagoa egin ahal izateko. Herritarrek ekimen horretan parte hartzeraz animatzen ditut. Plataforma segurua da, erabilera errazekoa, gainditu beha-

rreko misioekin (joko gisa), eta datu baliotsuak emango dizkigu", adierazi du Iñigo Urkitza Ingurumen zinegotziak.

Plataformaren funtzionamendua
Noisetech proiektua doakoa da udalarentzat, eta onura sozialak

ekarriko ditu kutsadura akustikoa eta haren ondorio kaltegarriak murrizteko, herritarren benetako pertzepzioan oinarrituta.

Interesa duten pertsonen modu errazean parte hartu ahal izango dute, urriaren 20tik azaroaren 20ra, Noisetech plataformaren bidez, noisetechexperience.com, eta hainbat misio edo erronka ebatzi ahal izango dituzte; erronka bat audioak jaso diren eremu bakoitzeko. Hautatutako lau eremuak, bi hiri-eremuak eta beste bi lasaiagoak, honako hauek dira: Areetako Geltokia plaza, San Nikolas plaza, Arenas Club parkea-Negubide eta Bolueko hezegunea.

Erronka bakoitzean parte hartzen dutenek hainbat audio entzun beharko dituzte egoera desberdinetan, eta audio bakoitzak transmititzen dion emozioa hautatu beharko dute hauen artean: poztasuna, eszitazioa, gogobetetzea, lasaitasuna, estresa, asperdura, haserrea edo tristura.

Errazagoa izango da kaskoekin eta giro isilean parte hartzea.

Horrela, herritarrek eremu horietako zarata buruz duten feedback emozionalaren txosten bat jasoko da, Zarata Mapa zehatzagoa edo errealistagoa egiteko. Oraingoa 2021ekoa da, eta dagoeneko eguneratzeko lanean ari dira.



Tiki Toki Zentroak hartuko du VI. Sail Inn Pro sektore nautikoaren topaketaren lehen jardunaldia

SAIL INN PROk seigarren edizioa egingo du urriaren 28an eta 29an Getxon (Tiki Toki Zentroa) eta Bilbon (BAT Dorrea), eta uretako-itsasoko berrikuntzaren erreferentziako foro gisa eta ekonomia urdinak eskaintzen dituen erronka eta aukera handiak aztertzeko funtsezko gune gisa sendotuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren laguntzarekin, industria nautikoaren trantsizioa bizkortzea du helburu, eredu jasangarriago, digitalago eta lehiakorrago baterantz, eta, aldi berean, Bizkaia itsas berrikuntzan estatuko eta nazioarteko erreferente gisa duen posizioa indartzea. Euskal itsas sektoreak 3.300 milioi euro baino gehiago sortzen ditu urtean, eta 13.000 pertsona inguru enplegatzen ditu zuzenean, batez ere ontzigitzan, itsas energiaren eta portu-teknologiaren. Asteartean, hilak 28, Faturako Tiki Tokin egingo den inaugurazio jardunaldia itsas sektore nautikoko talentuari, prestakuntzari eta enpleguari buruzkoa izango da. Programa osoa eta izena emateko inprimakia: www.sailinnpro.com.



Klima eta Energiaren Asteko azken jarduerak, AsteKlima

Birziklatutako materialekin etxe bat nola eraiki erakusteko tailer batekin amaituko da ostiral honetan, hilak 24, Klima Aldaketaren aurkako Nazioarteko Eguna, AsteKlima, Klimaren eta Energiaren Astea. *Tink Herra* da antolatutako tailerra eta 18:00etatik 19:30era egingo da, Villamonteko Kultur Aretoan. Hain zuzen ere, sormena, jasangarritasuna eta jolasa uztartzen dituen esperientzia da.

AsteKlima Getxon hasi zen, joan den larunbatean, hilak 18, Algortako Geltokiko plazan, AsteKlima Azoka ibiltariaren ospakizunarekin. Azoka horren helburua zen jasangarritasunarekin, energia eraginkortasunarekin eta tokiko ekintza klimatikoarekin lotutako ekimenak eta irtenbide praktikoak herritarrei hurbiltzea. Amaia Aguirre alkateak eta Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak plazan jarritako standak bisitatu zituzten, ekimenaren antolatzaile ziren Iñobe zuzendari nagusi Alexander Botorekin eta Energiaren Euskal Erakunde (EEE) zuzendari nagusi Mikel Amundarainekin batera.